



6. AKTA

2004ko maiatzaren 31n egindako **TOKIKO GOBERNU BATZARRA.**

LEKUA: Pasaiako Hiria eta Pasai Antxoko Kultur Etxea

DATA: Bi mila eta lauko maiatzaren hogeita hamaika.

BERTARATU DIRA:

Lore Suárez Linazasoro a.
Lucía Querido Noceti a.
Jesús M^a García Garde j.

Lehendakaria:

Izaskun Gómez Cermeño Andre Alkatea

Lehenengo deialdian, Izaskun Gómez Cermeño alkate andrea buru dutela eta Joseba Belaustegi Cuesta Behin-behineko idazkari jauna bertan dela, goian aipatu zinegotziak bildu dira, Tokiko Gobernu Batzarraren bilkura egiteko.

Xabier Pombo González zinegotzi jaunak ez du ezin etorria adierazi.

Tokiko Gobernu Batzarra legez osatzeko behar hainbat partaide etorri dela egiaztatu ondoren, lehendakariak 11:00etan bilkurari hasiera eman dio eta gai-zerrendako ondoko puntuak aztertzeari ekin diote:

1.- Aurreko batzarraldietako aktak, 4.a eta 5a., hurrenez hurren, 04-04-23koa eta 04-05-07koa, irakurri eta onartzea.

Bertaratutakoek goiburuan aipatzen den akta aztertu ondoren guztien adostasunez erabaki dute onartzea eta dagokion akta-liburura transkribatzea.

2.- Kontu eta fakturen zerrenda, 6/04 zenbakiduna.

Pasaiako Gobernu Batzarrak erabaki du ontzat ematea 6. zka. duen kontu eta fakturen zerrenda, BERREHUN ETA OGEITA HAMAHAZPI MILA BEDERATZIEHUN ETA BERROGEITA ZORTZI EURO ETA LAUROGEITA HAMAHAZPI ZENTIMOKOA(237.948,91 Euro) .



3.- 5. ziuertagiria (azkena) “Donibaneko Puntaseko Pasealekuaren urbanizazioa” lanarena.

Pasaiako Gobernu Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez, erabaki du ontzat ematea hurrengo ziuertagiria:

Zk.a: 5 (azkena)

Obra: “Donibaneko Puntaseko Pasealekuaren urbanizazioa”

Obra Zuzendariak: Joan Karlos Lapazarán jauna (Asmatu, S.L.), Mikel Galarraga jauna (Asmatu, S.L.) eta Jose M^a Irazusta jauna (Udal aparejadorea).

CONSTRUCCIONES DUMBOA, S.A.enpresa kontratistaren alde.

Zenbatekoa: BERROGEITA HAMABOST MILA LAUREHUN ETA HIRUROGEITA HAMABI EURO ETA HIRUROGEITA LAU ZENTIMO (55.472,64 Euro).

Honako hauen kargura: D-2395/02, D-1545/03 eta D-1546/03.

4.- Aldaketak Gizarte Larrialdiko Laguntza Ekonomikoetan.

Ikusirik Gizarte Zerbitzuetako arduradunak 2004ko apirilaren 27an eta maiatzaren 19an aurkeztutako proposamenak, Eusko Jaurlaritzako 1/04 eta Udaleko 1/04 proposamenari dagozkion Gizarte Larrialdiko Laguntza Ekonomikoen Aldaketei buruzkoak; Tokiko Gobernu Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez, ondokoa

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- Espedientean agertzen diren onuradunentzat Eusko Jaurlaritzako 1/04 eta Udaleko 1/04 proposamenei dagozkien Gizarte Larrialdiko Laguntza Ekonomikoak aldatzea, espedientean jasota dauden arrazoiengatik, bertan agertzen diren kopuruak anulatuz.

BIGARREN.- Aipatu kopuruak Gizarte Larrialdietako partidan sartzea.

HIRUGARREN.- Akordio honen berri Kontu-hartzailletza Sailari ematea.

5.- Eskaera: 3 zk. dun taxi lizentzia eskualdatzeko.

Pertsonal eta Administrazio Batzordeak 2004ko apirilaren 29an irizpena egin ondoren eta Ondare Saileko administrazioariak 2004ko apirilaren 22an egindako txostena aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertan dauden zinegotzien aho batez ondokoa



ERABAKI DU

LEHENENGOA.- Ezestea Jose Javier Ganzo Castro j.aren eskaera Pasaiako udalaren 3 zk.a duen taxi-lizentzia eskualdatzeko eta baita soldatapeko gidari bat kontratatzeko ere. Lizentziak eskualdatzeko legeak ezarritako baldintzak betetzen ez dituelako alde batetik eta udalbatzak bere garaian soldatapeko gidariak kontratatzeko aukera baztertu zuelako bestetik.

BIGARRENA.- Eskatzaileari jakitera ematea, erabakia goikoa izanik ere udalak baduela borondatea adostutako konponbide batera iristeko kontuan izanik taxien egoera orokorra zein den udalerrian. Horretarako Udala, Foru Aldundia eta Taxilarien Elkartearen arteko hitzarmen orokor bat lortu beharko dute laguntza bidezko lizentzia ezesteak egiteko.

6.- Akzioak erostea (Berria).

Udaleko Euskarako Informazio Batzordeak 2004ko maiatzaren 14an egindako proposamena aztertu ondoren, Pasaiako Gobernu Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez, ondokoa

ERABAKI DU

LEHENENGOA.- Berria egunkaria argitaratzen duen Euskarazko Komunikazio Taldea, S.A.ri 1000 euroko bi akzio erostea eta horretarako 2.000 euroko gastua onartzea. Kopuru hori "1.10.00.852.455.10.02.2004 akzioen erosketa" partidatik ordainduko da.

BIGARRENA.- Interesatuei akordio hau jakinaraztea eta honen aurka jar daitezkeen errekurtsoen berri ematea.

Hori guztia indarreko udal aurrekontuko B-609/04 baimendutik ordainduko da.

7.- Dirulaguntza Oarsoaldeko Hitzari.

Udaleko Euskarako Informazio Batzordeak 2004ko maiatzaren 14an egindako proposamena aztertu ondoren, Pasaiako Gobernu Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez, ondokoa

ERABAKI DU

LEHENENGOA.- Oarsoaldeko Hitzarentzat 12.000 euroko diru-laguntza onartzea; kopuru hori "10-481-455-10-01 euskararen aldeko jardueri dirulaguntzak" partidatik ordainduko da.



BIGARRENA.- Kultura, Gazteria eta Kirola eta Euskara sailtako egitasmoen berri emateko 24.000 euroko publizitate moduloak eta gehigarriak kontratatzea. Gastu hori “1.10.00.226.455.10.01.2004 publizitatea” partidatik ordainduko da.

HIRUGARRENA.- Interesatuei akordio hau jakinaraztea eta honen aurka jar daitezkeen errekurtsoen berri ematea.

Hori guztia indarreko udal aurrekontuko B-610/04 baimendutik ordainduko da.

8.- Dirulaguntza A Pabela Productions-i.

Gazteria eta Kirol zinegotziak 2004ko maiatzaren 20an egindako proposamena aztertu ondoren, Pasaiako Gobernu Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez, ondokoa

ERABAKI DU

LEHENENGOA.- “A Pabela Productions” Gazte Elkartearantz 1.400 euroko diru-laguntza onartzea, 2004ko martxotik 2005eko martxora bitarteko Bideo-kluberako. Diru-laguntza 2 epetan ordaindu beharko da:

- %60 akordioa onartutakoan
- %40 abenduaren bukaeran

BIGARRENA.- Interesatuei akordio hau jakinaraztea eta honen aurka jar daitezkeen errekurtsoen berri ematea.

Hori guztia indarreko udal aurrekontuko “06-481-456-20-01 Gazteria jarduetarako diru-laguntzak” partidatik eta B-515/04 baimendutik ordainduko da.

9.- Eskaera: Maiatzaren Lehena, 14an pasabide iraunkorra jartzeko.

Antonio Villa Vargasek 2004-02-05ean Instalazio-lizentzia (behin-behineko lizentzia) eskatu zuen Maiatzaren Lehena, 14-behean IBILGAILUEN GARAJE-ZAINDEGI jarduera jartzeko, eta ondoren pasabidea eskuratzeko. Lokal horretarako ibilgailuak olioztatze eta neumatikoak bulkantatzeko jarduera-lizentzia bideratzen ari da udala.

Eskatutako jarduera Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuen Araudiaren (JGOKAA) barne dago (2414/1961 Dekretua, azaroaren 30ekoa). Zehazki 2. ataleko 1. atalburuaren barruan, Ibilgailuen Zaindegi bezala.



165/1999 Dekretuaren III. eranskinean ezartzen da 3/1998 Legean aurreikusten den jardueralizentzia eskuratzetik salbuetsita dauden jardueren zerrenda. Horren arabera, jarduera honek ez ditu Lege hori betetzeko izapideak egin behar, ez baita erabilerara publikorako, ibilgailu partikularretarako baizik.

Udal teknikariak 2004ko martxoaren 9an eskaera horren aurkako txostena egin zuen.

Horiek horrela, Pasaiako Gobernu Batzarrak, zinegotzien aho batez, ondokoa

ERABAKI DU

LEHENA.- Antonio Villa Vargasi pasabide iraunkorreko lizentzia ukatzea, ibilgailuen zaindegia jartzeko lizentzia eskuratzeko ez duen bitartean. Jarduera horri 171/1985 Dekretua aplikatu behar zaio, Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuei buruzko Arau Teknikoena.

BIGARRENA.- Jarduera-lizentzia ematea ere ez da egokia; izan ere, Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuei buruzko Arau Teknikoen 171/1985 Dekretuaren 2. Ataleko 3.2 puntuan (beste zenbait) ondokoa adierazten baita: : *“Ezin izango dute inolako materiale nahiz likido sukoi edo erregairik izan, ibilgailuetako erregaia izan ezik”*; beraz, bi erabilerak ez dira bateragarriak, litekeena baita tailerrean erregai motaren bat edukitzea.

Bestalde, jarduera horretan $15 \text{ m}^3/\text{m}^2$ aireberritzea bermatu beharko litzateke, aireztapen bortxatuarekin, airea eraikinaren barrutik estalkira kanporatuz, behar adina sekzio duen hodi baten bidez; edo aurrez aurreko fatxadetan aireztapen naturala proposatu, lokalaren azaleraren % 2 hartuko lukeena. Eta gaur egun jarduerak ez du horrelakorik.

HIRUGARRENA.- Udal eskubideak likidatuko zaizkio, behar bezala jakinarazi ondoren.

LAUGARRENA.- Interesatuei akordio hau jakinaraztea eta honen aurka jar daitezkeen errekurtsioen berri ematea.

10.- Eskaera: instalazio-lizentzia (Ibilgailuen zaindegirako) eta obra-lizentzia Hamarretxeta, 27 beherako.

Alberto Alicante Lópezek 2004-01-15ean Instalazio-lizentzia (behin-behineko lizentzia) eta obra-lizentzia eskatu zituen Hamarretxeta, 27-behean dagoen lokala egokitu eta bertan IBILGAILUEN GARAJE-ZAINDEGI jarduera jartzeko.

Udal teknikariak eskaeraren aurkako txostena egin du eta bertan ondokoa adierazi du:

“(…)

- a) *Zaila da, ezinezkoa ez bada, lokal horretan bi ibilgailu sartzea, eta hori ezinbestekoa da lizentzia eskuratu ahal izateko.*
- b) *Bi ibilgailu sartzea lortuko balute ere, ezin izango litzateke bi ibilgailuak mugitzeko independentzia bermatu; izan ere, garajetik ateratzeko bietako batek beste ibilgailua atera eta berriaz sartu beharko luke, eta horrek Hamarretxeta kaleko zirkulazioa eragotziko luke; hain zuzen ere kale hori Antxotik Donostiara ateratzeko bidea da.*

Horiek horrela, Pasaiako Gobernu Batzarrak, zinegotzien aho batez, ondokoa

ERABAKI DU

LEHENA.- Alberto Alicante Lópezi Instalazio-lizentzia (behin-behineko lizentzia) eta obra-lizentzia ukatzea Hamarretxeta, 27-behean dagoen lokala egokitu eta bertan IBILGAILUEN GARAJE-ZAINDEGI jarduera jartzeko; eremu horretan ibilgailuak ateratzen ibiltzeak zirkulazio arazoak eragiten dituelako.

BIGARRENA.- Udal eskubideak likidatzea, behar bezala jakinarazi ondoren.

HIRUGARRENA.- Interesatuei akordio hau jakinaraztea eta honen aurka jar daitezkeen errekurtsoen berri ematea.

11.- Eskaera: minusbaliatuentzako aparkaleku erreserba Gran Sol, 4an.

Genoveva Martikorena Iburguren Andreak 2004ko martxoaren 18ko sarrera-data duen idatziaren bidez minusbaliatuendako aparkaleku erreserbarako lizentzia eskatu zuen.

Udaltzaingoak 2004ko apirilaren 20an kontrako txostena egin du, minusbaliatuen aparkaleku erreserbak arautzen duen udal Ordenantzaren 4. f artikulua betetzen ez duelako; izan ere, agiri guztietan azaltzen diren helbideak ez dira berdinak.

Horiek horrela, Pasaiako Gobernu Batzarrak, zinegotzien aho batez, ondokoa

ERABAKI DU

LEHENA.- Ez ematea Genoveva Martikorena Iburguren Andreak minusbaliatuendako aparkaleku erreserbarako lizentzia, minusbaliatuen aparkaleku erreserbak arautzen duen udal Ordenantzaren 4. f artikulua betetzen ez duelako; izan ere, agiri guztietan azaltzen diren helbideak ez dira berdinak.



BIGARRENA.- Interesdunari ebazpen hau jakinaraztea eta honen aurka jar daitezkeen errekurtsoen berri ematea.

12.- Eskaera: minusbaliatuentzako aparkaleku erreserba Esnabide, 44an.

Jaime Gonzalo Mayo Barreirok 2004ko martxoaren 11n idatzi bat aurkeztu zuen eta bertan minusbaliatuendako aparkaleku erreserbarako lizentzia eskatu zuen.

Udaltzaingoak 2004ko apirilaren 20an kontrako txostena egin du; izan ere, interesdunak aurkeztutako ziurtagiriek garraio publikoak erabiltzea galarazten dioten zailtasunak zehazteko baremoa 4 puntukoa duela egiaztatzen dute, eta udal Ordenantzak gutxienez 6 puntutakoa eskatzen du.

Gizarte Laguntzaileak 2004ko apirilaren 30ean kontrako txostena egin du.

Horiek horrela, Pasaiako Gobernu Batzarrak, zinegotzien aho batez, ondokoa

ERABAKI DU

LEHENA.- Ez ematea Jaime Gonzalo Mayo Barreirori minusbaliatuendako aparkaleku erreserbarako lizentzia; izan ere, interesdunak aurkeztutako ziurtagiriek garraio publikoak erabiltzea galarazten dioten zailtasunak zehazteko baremoa 4 puntutako duela egiaztatzen dute, eta udal Ordenantzak gutxienez 6 puntutakoa eskatzen du.

BIGARRENA.- Interesdunari ebazpen hau jakinaraztea eta honen aurka jar daitezkeen errekurtsoen berri ematea.

13.- Eskaera: minusbaliatuentzako aparkaleku erreserba Marques de Seoane, 4an.

M^a Asunción de la Cueva Pegok 2003ko abenduaren 4an idatzi bat aurkeztu zuen eta bertan minusbaliatuendako aparkaleku erreserbarako lizentzia eskatu zuen.

Udaltzaingoak 2003ko abenduaren 10ean kontrako txostena egin du; izan ere, interesdunak aurkeztutako ziurtagiriek garraio publikoak erabiltzea galarazten dioten zailtasunak zehazteko baremoa 2 puntukoa duela egiaztatzen dute, eta udal Ordenantzak gutxienez 6 puntutakoa eskatzen du.

Gizarte Laguntzaileak 2004ko apirilaren 30ean kontrako txostena egin du.

Horiek horrela, Pasaiako Gobernu Batzarrak, zinegotzien aho batez, ondokoa



ERABAKI DU

LEHENA.- Ez ematea M^a ASUNCION DE LA CUEVA PEGOri minusbaliatuendako aparkaleku erreserbarako lizentzia; izan ere, interesdunak aurkeztutako ziurtagiriek garraio publikoak erabiltzea galarazten dioten zailtasunak zehazteko baremoa 2 puntukoa duela egiaztatzen dute, eta udal Ordenantzak gutxienez 6 puntukoa eskatzen du.

BIGARRENA.- Interesdunari ebazpen hau jakinaraztea eta honen aurka jar daitezkeen errekurtsioen berri ematea.

14.- Eskaera, galdarak jartzeko Euskadi Etorbidea Sean.

JOSE MANUEL ABAL PORTELA jaunak (INSTALACIONES FONTABAL) Euskadi Etorbidea, 5. Zk.ko eraikinean gas-instalazioa jartzeko eskaera aurkeztu zuen. Eskaera hori aztertu ondoren, Pasaiako Gobernu Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez, ondokoa

ERABAKI DU

LEHENENGOA.- JOSE MANUEL PORTELA jaunari (INSTALACIONES FONTABAL) eskatu duen lizentzia ematea ondorengo baldintzekin:

- a) Aipatu instalazioak behin betiko martxan jartzeko enpresa erantzuleak egin beharko dio azken errebisio eta ikuskaketa, eta nahitaez eduki beharko du Industriaren Ministerioaren Delagazioak agintzen duena.
- b) Eraikineko jabekideek ezingo dituzte jarri galdarak, akumuladoreak, berogailuak, depositoak ea. bezalako aparatuak kale aldera ematen duten balkoietan, terrazetan edota fatxadetan eta jendeak ikusteko moduan.
- c) Aparatuak balkoietan jartzekotan, proiektu tekniko bat egin beharko da aparatuek okupatzen duten espazioa ixteko eta uniformitatea, homogeneitatea eta batasun kriterioak mantzetzeko eta udalak ezarritako arautegiaren arabera onar dezan onarpen proposamena egin beharko zaio.
- d) Pasaiako Arau Subsidiarioen 062 artikulua araber, eraikita dauden eraikinetan ezinezkoa denean gasak eta kea teilatura kanporatzeko konduktuak barrutik jartzea eta halaber igogailuak jartzea, udalak baimena eman ahal izango du ezarpen horiek patioei lotuta egitea teilaturaino proiektu tekniko bat aurkeztuz, hau teknikari konpoetenteak sinatua egonik eta bisatu ofizialarekin. Ez da baimentzen sukaldeko nahiz eta kalefakzioaren aparatuen gasak eta kea zuzenean kanporatzea.

- e) Pasaiako AASSen 072 artikuluan aipatzen diren NTE-ISH eta NTE-ISV-en arabera, hauek etxebizitzetan agintzen dute eta hauen erabilpenetan, gas galderek botatzen duten gasa eta kea teilatura kanporatu beharko dira horretarako espreski jarritako hodi baten bidez.
- f) Aurreko puntuan aipatzen dena ezinezkoa izanez gero, eta hau teknikoki demostratu beharko litzateke, uztailaren 12ko 2000 (BOPV 19/09/00 Agindua bete beharko da eta etxebizitzetan gasifikazio eta kalefakzio instalazioei buruz esaten dena.
- g) Gas Pasaiaren baimena.
- h) Pasaiako AASS-en 175 artikularen arabera, finka bakoitzaren hartune nagusitik kontsumitzeko lekuetaraino gorako kanalizazio bertikalak barru aldeko patioetatik joango dira beti edota kondukzio-kaxatik (aireztatua eta sarbideduna); kanpoaldeko fatxadatik oso disimulatua geratzen bada bakarriki izango da onartua (esekitokien barrutik, sareta barrutik kaxa aireztatutik ea. edo fatxadaren konposizio arkitektonikoaren barruan ongi egokituko den soluzioren baten bidez).
- i) Presioaren kaxa erregulatzailerak inpaktu bisual gutxien izango duten painuetan joango dira.
- j) Aukeratutako fatxadan ahalik eta modurik ezkutuen erabiliko da.

BIGARRENA.- Interesdunari ebazpen hau jakinaraztea eta honen aurka jar daitezkeen errekurtsoen berri ematea.

HIRUGARRENA.- Akordio honen berri Udal Kontu-hartzaitzari ematea dagozkion tasak eta zergak likidatzeko.

15.- Eskaera, galdarak jartzeko Euskadi Etorbidea, 13 bisean.

VICENTE FERNANDEZ LOPEZ jaunak Euskadi Etorbidea, 13 bis-ean dagoen eraikinean gas-instalazioa jartzeko eskaera aurkeztu zuen. Eskaera hori azertu ondoren, Pasaiako Gobernu Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez, ondokoa

ERABAKIDU

LEHENENGOA.- VICENTE FERNANDEZ LOPEZ-i eskatu duen lizentzia ematea ondorengo baldintzekin:

- a) Aipatu instalazioak behin betiko martxan jartzeko enpresa erantzuleak egin beharko dio azken errebisio eta ikuskaketa, eta nahitaez eduki beharko ditu Industriaren Ministerioaren Delagazioak agintzen duena.

- b) Eraikineko jabekideek ezingo dituzte jarri galdarak, akumuladoreak, berogailuak, depositoak ea. bezalako aparatuak balkoietan, terrazetan edota kale aldera ematen duten fatxadetan eta jendeak ikusteko moduan.
- c) Aparatuak balkoietan jartzekotan, proiektu tekniko bat egin beharko da aparatuek okupatzen duten espazioa ixteko eta uniformitatea, homogeneitatea eta batasun kriterioak mantzentzeko eta udalak ezarritako arautegiaren arabera onar dezan onarpen proposamena egin beharko zaio.
- d) Pasaiako Arau Subsidiarioen 062 artikularen arabera, eraikita dauden eraikinetan ezinezkoa denean gasak eta kea teilatura kanporatzeko konduktuak barrutik jartzea eta halaber igogailuak jartzea, udalak baimena eman ahal izango du ezarpen horiek patioei lotuta egitea teilaturaino proiektu tekniko bat aurkeztuz, hau teknikari konpoetenteak sinatua egonik eta bisatu ofizialarekin. Ez da baimentzen sukaldeko nahiz eta kalefakzioaren aparatuen gasak eta kea zuzenean kanporatzea.
- e) Pasaiako AASSen 072 artikuluan aipatzen diren NTE-ISH eta NTE-ISV-en arabera, hauek etxebizitzetan agintzen dute eta hauen erabilpenetan, gas galderek botatzen duten gasa eta kea teilatura kanporatu beharko dira horretarako espreski jarritako hodi baten bidez.
- f) Aurreko puntuan aipatzen dena ezinezkoa izanez gero, eta hau teknikoki demostratu beharko litzateke, uztailearen 12ko 2000 (BOPV 19/09/00 Agindua bete beharko da eta etxebizitzetan gasifikazio eta kalefakzio instalazioei buruz esaten dena.
- g) Gas Pasaiaren baimena.
- h) Pasaiako AASS-en 175 artikularen arabera, finka bakoitzaren hartune nagusitik kontsumitzeko lekuetaraino gorako kanalizazio bertikalak barru aldeko patioetatik joango dira beti edota kondukzio-kaxatik (aireztatua eta sarbideduna); kanpoaldeko fatxadatik oso disimulatua geratzen bada bakarrik izango da onartua (esekitokien barrutik, sareta barrutik kaxa aireztatutik ea. edo fatxadaren konposizio arkitektonikoaren barruan ongi egokituko den soluzioren baten bidez).
- i) Presioaren kaxa erregulatzailerak inpaktu bisual gutxien izango duten painuetan joango dira.
- j) Aukeratutako fatxadan ahalik eta modurik ezkutuen erabiliko da.

BIGARRENA.- Akordio hau interesatuari jakinaraztea eta honen aurkako errekurtsoen berri ematea.

HIRUGARRENA.- Akordio honen berri Udal Kontuhartzaitzari ematea dagozkion tasak eta zergak likidatzeko.

16.- Eskaera, galdarak jartzeko Nafarroa Etorbidea, 18an.



TALLERES DE FONTANERIA Y ELECTRICIDAD ZABAL enpresak Nafarroa Etorbidea, 18. zk.an dagoen eraikinean gas-instalazioa jartzeko eskaera aurkeztu zuen. Eskaera hori aztertu ondoren, Pasaiako Gobernu Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez, ondokoa

ERABAKI DU

LEHENENGOA.- TALLERES DE FONTANERIA Y ELECTRICIDAD ZABALA-ri. eskatu duen lizentzia ematea hurrengo baldintzekin:

- a) Aipatu instalazioak behin betiko martxan jartzeko enpresa erantzuleak egin beharko dio azken errebisio eta ikuskaketa, eta nahitaez eduki beharko ditu Industriaren Ministerioaren Delagazioak agintzen duena.
- b) Eraikineko jabekideek ezingo dituzte jarri galdarak, akumuladoreak, berogailuak, depositoak ea. bezalako aparatuak balkoietan, terrazetan edota kale aldera ematen duten fatxadetan eta jendeak ikusteko moduan.
- c) Aparatuak balkoietan jartzekotan, proiektu tekniko bat egin beharko da aparatuek okupatzen duten espazioa ixteko eta uniformitatea, homogeneitatea eta batasun kriterioak mantzentzeko eta udalak ezarritako arategiaren arabera onar dezan onarpen proposamena egin beharko zaio.
- d) Pasaiako Arau Subsidiarioen 062 artikularen arabera, eraikita dauden eraikinetan ezinezkoa denean gasak eta kea teilatura kanporatzeko konduktuak barrutik jartzea eta halaber igogailuak jartzea, udalak baimena eman ahal izango du ezarpen horiek patioei lotuta egitea teilaturaino proiektu tekniko bat aurkeztuz, hau teknikari konpoetenteak sinatua egonik eta bisatu ofizialarekin. Ez da baimentzen sukaldeko nahiz eta kalefakzioaren aparatuen gasak eta kea zuzenean kanporatzea.
- e) Pasaiako AASSen 072 artikuluan aipatzen diren NTE-ISH eta NTE-ISV-en arabera, hauek etxebizitzetan agintzen dute eta hauen erabilpenetan, gas galderek botatzen duten gasa eta kea teilatura kanporatu beharko dira horretarako espreski jarritako hodi baten bidez.
- f) Aurreko puntuan aipatzen dena ezinezkoa izanez gero, eta hau teknikoki demostratu beharko litzateke, uztailearen 12ko 2000 (BOPV 19/09/00 Agindua bete beharko da eta etxebizitzetan gasifikazio eta kalefakzio instalazioei buruz esaten dena.
- g) Gas Pasaiaren baimena.
- h) Pasaiako AASS-en 175 artikularen arabera, finka bakoitzaren hartune nagusitik kontsumitzeko lekuetaraino gorako kanalizazio bertikalak barru aldeko patioetatik joango dira beti edota konduktzio-kaxatik (aireztatua eta sarbideduna); kanpoaldeko fatxadatik oso disimulatua geratzen bada bakarrik izango da onartua (esekitokien barrutik, sareta barrutik kaxa aireztatutik ea. edo fatxadaren konposizio arkitektonikoaren barruan ongi egokituko den soluzioren baten bidez).

- i) Presioaren kaxa erregulazaileak inpaktu bisual gutxien izango duten painuetan joango dira.
- j) Aukeratutako fatxadan ahalik eta modurik ezkutuen erabiliko da.

BIGARRENA.- Akordio honen berri jakitera ematea legozkiokeen errekursoekin.

HIRUGARRENA.- Akordio honen berri Udal Kontuhartzaitzari ematea dagozkion tasak eta zergak likidatzeko.

17.- Eskaera, galdarak jartzeko Daniel de Castelao, 2-2. ezk.

JAVIER M^a RIOS NIN jaunak Daniel de Castelao, 2.zk.an dagoen eraikinean gas-instalazioa jartzeko eskaera aurkeztu zuen. Eskaera hori aztertu ondoren, Pasaiako Gobernu Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez, ondokoa

ERABAKI DU

LEHENENGOA.-JAVIER M^a RIOS NIN-i. eskatu duen lizentzia ematea ondorengo baldintzekin:

- a) Aipatu instalazioak behin betiko martxan jartzeko enpresa erantzuleak egin beharko dio azken errebisio eta ikuskaketa, eta nahitaez eduki beharko ditu Industriaren Ministerioaren Delagazioak agintzen duena.
- b) Eraikineko jabekideek ezingo dituzte jarri galdarak, akumuladoreak, berogailuak, depositoak ea. bezalako aparatuak balkoietan, terrazetan edota kale aldera ematen duten fatxadetan eta jendeak ikusteko moduan.
- c) Aparatuak balkoietan jartzekotan, proiektu tekniko bat egin beharko da aparatuek okupatzen duten espazioa ixteko eta uniformitatea, homogeneitatea eta batasun kriterioak mantzentzeko eta udalak ezarritako arautegiaren arabera onar dezan onarpen proposamena egin beharko zaio.
- d) Pasaiako Arau Subsidiarioen 062 artikulua araberan, eraikita dauden eraikinetan ezinezkoa denean gasak eta kea teilatura kanporatzeko konduktuak barrutik jartzea eta halaber igogailuak jartzea, udalak baimena eman ahal izango du ezarpen horiek patioei lotuta egitea teilaturaino proiektu tekniko bat aurkeztuz, hau teknikari konpoententeak sinatua egonik eta bisatu ofizialarekin. Ez da baimentzen sukaldeko nahiz eta kalefakzioaren aparatuen gasak eta kea zuzenean kanporatzea.

- e) Pasaiako AASSen 072 artikuluan aipatzen diren NTE-ISH eta NTE-ISV-en arabera, hauek etxebizitzetan agintzen dute eta hauen erabilpenetan, gas galderek botatzen duten gasa eta kea teilatura kanporatu beharko dira horretarako espreski jarritako hodi baten bidez.
- f) Aurreko puntuan aipatzen dena ezinezkoa izanez gero, eta hau teknikoki demostratu beharko litzateke, uztailaren 12ko 2000 (BOPV 19/09/00 Agindua bete beharko da eta etxebizitzetan gasifikazio eta kalefakzio instalazioei buruz esaten dena.
- g) Gas Pasaiaren baimena.
- h) Pasaiako AASS-en 175 artikulua arabera, finka bakoitzaren hartune nagusitik kontsumitzeko lekuetaraino gorako kanalizazio bertikalak barru aldeko patioetatik joango dira beti edota kondukzio-kaxatik (aireztatua eta sarbideduna); kanpoaldeko fatxadatik oso disimulatua geratzen bada bakarri ikango da onartua (esekitokien barrutik, sareta barrutik kaxa aireztatutik ea. edo fatxadaren konposizio arkitektonikoaren barruan ongi egokituko den soluzioren baten bidez).
- i) Presioaren kaxa erregulatzailerak inpaktu bisual gutxien izango duten painuetan joango dira.
- j) Aukeratutako fatxadan ahalik eta modurik ezkutuen erabiliko da.

BIGARRENA.- Akordio hau interesatuari jakinaraztea eta honen aurka jar daitezkeen errekurtsoen berri ematea.

HIRUGARRENA.- Akordio honen berri Udal Kontu-hartzailerari ematea dagozkion tasak eta zergak likidatzeko.

18.- Ondare-erantzukizunaren inguruko hainbat erreklamazio.

A) Adelina Carmona Leonek egindako ondare-erreklamazioa.

ADELINA CARMONA LEON andreak berraztertze errekurtsua aurkeztu du Pasaiako Gobernu Batzarrak 2004ko martxoaren 30ean emandako ebazpenaren aurka. Ebazpen horren bidez ezetsi egin zen eskatzaileak udalari egindako erreklamazioa, alegia: 117.549,66 euro eskatu zituen, Azkuene-Ulia-Errenteria kaleen urbanizazio-lanak egiterakoan bere establezimenduan sortu diren kalteen ordainetan. Berraztertze errekurtsu hori aztertu ondoren, Pasaiako Gobernu Batzarrak, bertan dauden zinegotzien aho batez, ondokoa

ERABAKI DU

LEHENA.- Ezestea Adelina Carmona Leonek aurkeztutako berraztertze errekurtsua, Pasaiako Gobernu Batzarrak 2004ko martxoaren 30ean emandako ebazpenaren aurkakoa. Izan ere, errekurtsogileak lehenengo erreklamazioan erabilitako argudio berak erabili ditu, eta argudio horiek



dagoeneko aztertuta daude, errekurritutako ebazpena emateko. Beraz, ebazpena oinarritzen duten arrazoiak baliogabetu ez direnez, ebazpena bere horretan geratuko da.

BIGARRENA.- Akordio hau interesatuari jakinaraztea eta honen aurkako errekurtsoen berri ematea.

B) Digna Juncal Fernandezek aurkeztutako ondare-erreklamazioa.

DIGNA JUNCAL FERNANDEZ andreak 1.140,30 euro erreklamatu dizkio udalari; Trintxerpeko azokan duen postuan janari izoztuak hondatu baitzitzaizkion, 2004ko urtarrilaren 6an azkokako argiztapen-koadro orokorrean izandako sutearen ondorioz. Eskaerarekin batera, hondatutako merkantziaren balorazioa aurkeztu du.

Udaltzainburuak egindako txostena aztertu ondoren, udalak frogatutzat eman ditu gertaerak.

Aseguru-etxearen balorazioa aztertu ondoren eta kontuan hartuta kalteen kopuruak ez duela gaintitzen aseguru-polizan ezarritako frankizia, Pasaiako Gobernu Batzarrak, bertan dauden zinegotzien aho batez, ondokoa

ERABAKI DU

LEHENA.- DIGNA JUNCAL FERNANDEZ andreak egindako erreklamazioa BAIESTE, eta 1.140,30 euro ordain dakizkiola agintzea, B-503/04 baimendutik.

BIGARRENA.- Akordio hau interesatuari jakinaraztea eta honen aurkako errekurtsoen berri ematea.

C) Belen Castrillejo Amayuelas andreak egindako ondare-erreklamazioa.

BELEN CASTRILLEJO AMAYUELAS andreak 2004ko apirilaren 29ko sarrera-datarekin, udalari 64,96 euro erreklamatu zizkion ondoko kalteengatik: aparkaleku gisa prestatuta dagoen Luzuriagako orubean haren ibilgailuaren gorpila zulatu egin zen, lurretik ateratzen zen burni batekin. Eskaerarekin batera kalte horien konponketaren faktura aurkeztu du.

Espedientean dauden txostenetan oinarrituta, gertaerak frogatutzat eman dira.

Horiek horrela eta kontuan hartuta erreklamazioan hondatutako kubiartaren erosketa-balioa eskatu zela eta ez bere benetako balioa, hau da, gertaeraren unean kubiarta horrek zuen salmenta-balioa; Pasaiako Gobernu Batzarrak, bertan dauden zinegotzien aho batez, ondokoa



ERABAKI DU

LEHENA.- BELEN CASTRILLEJO AMAYUAELAS andreak egindako erreklamazioa zati batez BAIESTE, eta salmenta-balioa ordain dakiola agintzea, hau da, gurpilak merkatuan duen balioaren % 50 (32,48 euro), B-634/04 baimendutik.

BIGARRENA.- Akordio hau Zerbitzu, Sare eta Mantentze-lanen Sailari jakinarazi, lurretik ateratzen den irtengune arriskutsu hori ken dezaten.

HIRUGARRENA.- Akordio hau interesatuari jakinaraztea eta honen aurka jar daitezkeen errekurtsoen berri ematea.

- Gaizerrendatik at eta bertako zinegotziek aho batez bertan sartzea aurrez berretsi ondoren, honako akordio hau hartu dute:

19.- Hiritartze ekimenentzako diru-laguntzak.

Donibane, 124. zko.ko jabekideek 2004ko maiatzaren 20an bi idazki aurkeztu zituzten ondokoa eskatzeko: udalak arauz onartuta dauzkan laguntzak eman diezazkiela, 2002ko urtarrilean 11ko lizentziarekin eraikinean egindako obretarako.

Idazki horietako batean argudiatu dute udal honek lehen ere laguntzak eman izan dituela eraikinak birgaitzeko hirigintzako ekimenengatik, besteak beste, Donibane, 126. zk. koei.

Beste idazkian, berriz, udalari jakinarazten diote euren eraikina erabat berritu behar zutela, termitek kalte larriak eragin zituztelako. Gainera, eraikinaren atzealdean dagoen zurruna euren kontura konpondu zutela ere adierazi dute, zurruna hori bide publikoa izanik.

Aurreko aurrekontu-ekitaldietan bazegoen hiritartzeko ekimenetarako laguntzak emateko partida bat, eta Gobernu Batzordeak zuen laguntza hori emateko ahalmena. Oraingo Aurrekontu Orokorrean ez dago horrelako partidarik.

Azaldutakoa kontuan hartuta, Pasaiako Gobernu Batzarrak zinegotzien aho batez, ondokoa

ERABAKI DU

LEHENA.- Donibane, 124. zko.ko jabekideei laguntzak ukatzea, 2002ko urtarrilean 11ko lizentziarekin eraikinean egindako obretarako; ekitaldi honetako aurrekontuan ez dagoelako helburu horretarako partidarik.



BIGARRENA.- Interesdunei ebazpen hau jakinaraztea eta honen aurka jar daitezkeen errekurtsoen berri ematea.

Eta aztertzeko beste gairik ezean, 11,45etan amaitu da bilkura. Bertan eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin, nik, behin-behineko idazkariak, akta hau egiten dut alkatearen oniritziarekin.